

**Cristóbal Balenciaga
Museoak ekonomian,
gizartean eta
ingurumenean duen
eraginaren ebaluazioa**

Egikaritze-laburpena

2021eko iraila

IO B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA
10 URTE / AÑOS / ANS / YEARS



EY

**Building a better
working world**

1. Magnitude nagusiak

Ekarpen ekonomikoa

Azken 10 urteotan, Cristóbal Balenciaga Museoaren jarduerak **14,8 milioi euroko** eragin ekonomiko zuzena, zeharkakoa eta induzitua izan du

14,8
milioi euroko

1 €
sektore publikoak museoan
inbertitutako zenbatekoa



1,12 €
Espainiako ekonomian
lortutako balio erantsia

503.668
bisitari



Cristóbal Balenciaga Museoko bisitariek **33,4 milioi euroko** zeharkako eragina eta eragin induzitua izan dute ekonomian azken 10 urteotan

Cristóbal Balenciaga Museoko bisitariek honako sektore hauetan sortzen dute balioa



10,7 M€

erkataritza-sektorean



7,5 M€

garraio-sektorean



4,6 M€

estate, finantza eta
aseguruen sektorean

Ekarpen sozial eta kulturala

Cristóbal Balenciaga Museoak sortutako zuzeneko lanpostu bakoitzak **5 lanpostu** (zeharkakoak eta induzituak) sortzen ditu Espainiako ekonomian

321 lanpostu sortu dira
(zuzenak, zeharkakoak eta induzituak)
museoaren jardueraren ondorioz

767 lanpostu sortu dira
zeharkakoak eta induzituak) bisitarien
jardueren ondorioz

Eragin nagusiak
profesionalen
hezkuntza eta
prestakuntzan

11.000 ikaslek parte hartu zuten eskola-programetan

4.995 pertsonak erabili zituzten irisgarritasun-programa digitalak

360 parte-hartzaile goi-mailako jostuntzako teknikari buruzko 18 ikastaroetan

1.145 parte-hartzaile ehungintza-tekniken 71 tailerretan



Moda-eskoletako

1.245
parte-hartzaile

15 eskola
espezializatu
baino gehiago

10
herrialde



Bilduma
2020an »

3.199 erreferentzia eta 1.741 dokumentu
gehitu dira azken 10 urteotan

2.950
dokumentu

5.559
pieza

Museoaren ondare-balioa
12 aldiz biderkatu da 10 urte hauetan



2.731.661 €
2019ko bildumen
ondare-balioa

Ingurumen- inpaktua

Cristóbal Balenciaga Museoko bisitari bakoitzak
1,91 kg CO₂eq -ko karbono-aztarna sortzen du



943,75 ton CO₂eq

Berotegi gasen isuriak
museoaren 10 urteetan

308,89 ton CO₂eq: 1. irismeneko isuriak

634,71 ton CO₂eq: 2. irismeneko isuriak

Museoko bisitari baten
CO₂eq isuriak pertsona batek
autobus publiko batean
egindako 13 kilometroko
bidaia baten parekoak izan
ziren 2020an.



Museoa ireki zenetik igaro
diren 10 urteetako isuriak
Bilbo eta **Mexiko Hiria**
arteko joan-etorriko hegaldi
baten (220 bidaiarirekin)
baliokideak dira



5.308 m³

ur-kontsumoa azken
10 urteotan



819 kg

azken 10 urteotan
sortutako **hondakinak**

2. Sarrera

Azterketaren helburuak

Cristóbal Balenciaga Museoa 2011n inauguratu zen Getarian, gure herrialdeko goi-mailako jostuntzako maisu handienetako bat den Cristóbal Balenciaga Eizaguirre omentzeko asmoz.

EY-k gauzatu du Cristóbal Balenciaga Museoak ekonomian, gizartean eta ingurumenean duen eraginaren ebaluazio hau, museoarekin elkarlanean, erakundearen X. urteurrena dela eta. Azterlanaren helburua da Cristóbal Balenciaga museoak eta haren jarduerak duten inpaktu ekonomiko eta kulturala aztertzea. Erakunde biek lankidetzara hori ahalbidetu duten printzipio eta interes komunak partekatzen dituzte.

Eragin-azterketaren helburu nagusiak:

1. Kultur sektorean eta sektore publikoan kontu-ematea eta gardentasuna sustatzea.
2. Interes-taldeak eta gizartea museoaren eraginarekiko sentikor bihurtzea.
3. Erabakiak hartzeko informazioa eta ikuspegia eskaintzea.

Jenio baten ondarea

Cristóbal Balenciaga Getarian (Gipuzkoa, Euskadi, Espainia) jaio zen, 1895eko urtarrilaren 21ean. Bere amaren ogibideari esker, gazte-gaztetatik dotorezia eta gustu onarekin harremanetan egon zen, eta horrek bere talentua eta modarekiko grina suspertzen lagundu zion.

Balenciaga historiako diseinatzaile garrantzitsuenetako bat bilakatu zen Parisen. Garrantzi sozial, ekonomiko eta kultural handiko bezero kosmopolitak ezagutu zituen 'Argiaren hirian'. Halaber, garaiko ehun-hornitzaile garrantzitsuenekin eta goi-mailako jostuntzarekin lotutako lanbideetako espezialista nagusiekin egin zuen lan. XX. mendearen erdialdeko moda markatu zuten Balenciagaren sorkuntzek, erosotasuna, diseinuen garbitasuna, Espainiako tradizioaren berrinterpretazioa eta bolumen berritzaileen garapena oinarri hartuta.

"Emakumeek modu naturalean ibili behar dute, seguru sentituz", esan ohi zuen Balenciagak. Diseinatzaileak takoi baxuari, belaun azpiko gonari eta hiru laurdeneko mahukari eutsi zien beti. Balenciagak prentsa espezializatuaren, lankideen eta garaikideen miresmena lortu zuen bere sorkuntzen doitasuna, teknikaren erabilera, denborazkanpokotasuna, abangoardismoa eta perfektionismoari esker. Ezaugarri horiek guztiek printzipio pertsonal sendoetan zituzten erroak: zintzotasuna, koherentzia eta kreatibitatea. Bestalde, berritzeko gaitasun handia (etengabeko bilakaera sotil batean), zentzumenen ezagutza zehatza eta neurrien eta proportzioen menderatze bikaina erakutsi zituen Getariako jostunak. Horrek guztiak, emakumeen gorputzari buruz zuen ikuskera eta interpretazioarekin batera, garai guztietako diseinatzaile eraginkorrenetako bat bilakatu zuen Cristóbal Balenciaga.

“

Balenciagak libre sentiarazi zituen emakumeak; ba ote dago laudorio handiagorik?

Hubert de Givenchy

Cristóbal Balenciaga Museoaren historia

Cristóbal Balenciaga Fundazioaren xedea da Cristóbal Balenciaga jostunaren figurak eta obrak modaren eta goi-mailako jostintzaren munduan, bereziki, eta sorkuntza artistikoan, oro har, izandako garrantzia sustatu, zabaltu eta indartzea. Fundazioaren proiektu nagusietako bat hasiera-hasieratik Getarian (diseinatzailearen jaioterrian, hain justu) museo bat irekitzea zen, Balenciagaren bizitza, obra eta garrantzia moda-arloan ezagutarazteko. Horretarako, Aldamar jauregia aukeratu zen.

Cristóbal Balenciaga Museoa 2011ko ekainaren 6an inauguratu zen. Cristóbal Balenciagaren figura, obra eta testuingurua zabaltzea da museoaren egitekoa; izan ere, **jostun bati eskainitako munduko lehen museoa** da Getariakoa.

Bilduma

Cristóbal Balenciaga Museoak 5.500 jantzi original baino gehiago zaintzen ditu. Bilduma hau Cristóbal Balenciagak utzitako ondare material eta immaterialaren erakusgarria da. Espainian garrantzi handiena duen moda-erakusketa da, bai bere iraupen kronologikoagatik, bai bilduma osatzen duten piezen kalitateagatik. Nazioarteko moda-bildumen artean nabarmentzen da bilduma.

Jantzi eta osagarrien bildumarekin batera, Balenciagarekin, jostintzarekin edo etxeetako negozioarekin zerikusia duten bestelako objektuak, funts dokumentalak eta bibliografia-funts espezializatuak (historikoak zein garaikideak) ere badaude museoan.





Jarduerak

Cristóbal Balenciaga Museoak hezkuntza- eta bitartekaritza-jarduerak antolatu eta kudeatzen ditu, bere funtsak eta edukiak (bilduma iraunkorrak zein aldi baterako erakusketak) ezagutarazi eta partekatzeko. Museoaren jarduerak bi ildotan banatzen dira: batetik, gizarte-hezkuntza, eta, bestetik, moda arloko profesionalei zuzendutako prestakuntza ekimenak.

Gizarte-hezkuntza

Eskola-
programa

Familientzako
programa
eta haur eta
gazteentzako
programa

Askotariko
premiak dituzten
pertsontentzako
programa


Eskola-programak hezkuntza-ziklo guztietara egokitutako jarduerak eskaintzen ditu. Helburua ikasleak sentsibilizatzea eta moda kultur adierazpen gisa ulertzea da, testuinguru horretan irizpideak eta printzipioak sortuz. Horretarako, ehunak erabiltzen dira ikasketa-planeko edukiak bideratu eta indartzeko tresna bezala. Hamar urte hauetan, ia 11.000 ikasle igaro dira museotik, eta parte-hartzaileek gora egin dute pixkanaka.

Familientzako jardueren helburua da museoako edukiak modu ludiko eta sortzailean hurbiltzea sei eta hamalau urte bitarteko familia eta haurrei, bai eta aisialdian dauden gazteei ere. Parte-hartzaileek bildumarekin, aldi baterako erakusketekin eta bertan ikusgai dauden jantziekin

lotutako gaiak ezagutzeko eta aztertze aukera dute. 2011tik, 762 helduk eta 1.292 haur eta gaztek parte hartu dute familientzako jardueretan. Asebetetze-maila 10etik 9,4koa izan da.

Azkenik, Cristóbal Balenciaga Museoak, Kutxa Fundazioarekin lankidetzan, behar bereziak dituzten pertsonen sarbidea eta inklusioa errazteko bisita- eta tailer-programak eskaintzen ditu. Helburua desgaitasunen bat duten pertsonen beharrei erantzutea da, museoak eta haren edukiak ahalik eta kolektibo gehienentzat eskuragarri bilakatzeko. 761 lagunek parte hartu dute programa sozial eta irisgarritasun programetan. Asebetetze-maila oso altua izan da, 10etik 9,7koa.

Moda arloko profesionalen zuzendutako prestakuntza



Museoak sustatzen duen goi-mailako jostuntzako ikastaroek modaren egungo testuingurura moldatutako Cristóbal Balenciagaren balioak eta -bereziki- teknikak zabaltzeko asmoa dute. Orain arte, 18 ikastaro antolatu dira eta 360 pertsonak parte hartu dute. Batez besteko asebetetze-maila 10etik 9,7koa izan da.

Bestalde, ehngintza-tekniken tailerrek museoaren edukiak hurbildu eta ulertzeko beste era bat bultzatu nahi dute. Horretarako, hainbat teknika (batez ere praktikoak) erabiltzea proposatzen da tailerretan. 71 ikastaro egin dira, 1.145 parte-hartzaileekin, 286 prestakuntza-ordutan zehar. Asebetetze-maila 10etik 8,6koa izan da.

Halaber, Udako Eskola proiektua aurkeztu zuen museoak 2017an, urtero moda-arloko profesionalen zuzendutako teknifikazio-topaketa bat antolatzeko asmoz. Helburu nagusia arloko profesionalen kualifikazio-maila handitzea eta enpresa-garapena bultzatzea da. Hiru edizio egin dira, guztira 32 prestakuntza-ordu eman dira eta 160 profesionalak parte hartu dute. Batez besteko asebetetze-maila 10etik 7,6koa izan da.

Udako ikastaroek gain, ezagutzetan sakondu nahi duten profesionalentzako beste ikastaro batzuk antolatu dira ere, profil espezializatuari lotutako trebetasunak eta esperientziak sakontzen laguntzeko. Guztira 11 ikastaro eman dira, 220 parte-hartzaileekin, 176 prestakuntza-ordutan zehar. Batez besteko asebetetze-maila 10etik 9,1koa izan da.

Transmissions

Moda diseinuan prestigio handiena duten nazioarteko eskoletako (12 erakunde dira gaur egun) irakasle eta ikasleak bildu ditu museoak 2016tik sustatu duen Transmissions hezkuntza- eta sorkuntza-proiektuak. Parte-hartzaileek Cristóbal

Balenciagari buruzko eduki propioetan oinarritutako ikerketa eta sorkuntza proiektu honekin bat egin dezaten da helburua. Proiektuarekin bat egin duten erakundeek ospe handia dute eta mundu osoan zehar banatuta daude.

Proiektuan parte hartzen duten ikasle eta irakasleak Getariara etortzen dira, Cristóbal Balenciagak utzitako ondarea ezagutzeko. Horretarako, sortzailearen obra zuzenean aztertzen dute museoan bertan, eta bildumen artxiboak kontsultatzeko aukera dute. Saio horietan Balenciagaren gaitasun tekniko eta sortzailea islatzen duten hainbat pieza aztertzen dira. 2016an sortu zenetik, **730 pertsonak** parte hartu dute Transmissions proiektuan; horietatik, **520 lagun** 2019/2020ko edizioan ari dira beren proiektuak garatzen.

Gainera, hainbat lankidetzak-esparru ezarri dira moda-eskolekin, normalean bi urteko hitzarmenen bidez. Izan ere, 32 saio antolatu dira **10 eskola espezializaturekin**, museoan egiten diren ariketa praktikoetan oinarritutako programa baten bidez. **515 ikasle** parte hartu dute saio hauetan.

Beste jarduera batzuk

Museoak erakusketa-programa bat garatzen du urtero, Cristóbal Balenciagaren figura zabaltzeko eta ezagutzera emateko, eta bisitariak modaren alderdi kulturalari buruz kontzientziatu eta sentikor bihurtzeko. Guztira, 16 jantzi-erakusketa (berezko bildumetatik abiatuta edo beste bilduma batzuekin elkarlanean) eta beste diziplina batzuei buruzko 16 erakusketa egin dira.

Azkenik, Cristóbal Balenciagak bere egin zituen berrikuntza-printzipioekin bat etorritik, museoak arreta berezia eskaintzen die ikerkuntzari eta sorkuntza berriei. Horregatik, 2014. urtetik, museoak Josten duten eskuak deituriko ikerketa-ildo bati ekin dio, ondare immateriala aztertzeko. Horretarako, tailerretako profesionalen testigantzak, dokumentazioa eta argazkiak biltzen ditu, bai eta goi-mailako joskintzaren trebetasunak ere.

Bisitari eta beste museo batzuekiko kultura-bitartekotza museoak hezkuntza- eta prestakuntza-arloetan gauzatzen dituen jarduera garrantzitsuenetako bat da. .2011tik, **2.654 bisita gidatu** egin dira, eta **40.290 pertsonak** parte hartu dute.




Bisitariak

2011n inauguratu zenetik 2021eko ekainera arte, jatorri desberdineko 500.000 bisitari baino gehiago jaso ditu Cristóbal Balenciaga Museoa. Bisitarien % 38,5 Euskaditik etorri dira, eta Gipuzkoa da ekarpenik handiena egin duen lurraldea.

Beste autonomia-erkidegoetatik etorritako turistak, batez beste, % 31,5 izan dira 10 urte hauetan. Bisitarien jatorri ohikoena Madril, Nafarroa eta Bartzelonako probintzia dira. Guztira, Espainiako turismoa bisitari guztien % 70 izan da. Gainerako % 30etik, % 24,2 europar jatorriko bisitariak dira, eta Frantzia da -alde handiz- jatorrizko herrialderik ohikoena (% 17,8).

Bisitarien jatorria



Nabarmentasun instituzionala

Cristóbal Balenciaga Museoa fundazio gisa inskribatuta dago. Bere jarduerak interes sozial eta kulturalakotzat jotzen dira 2/2019 Foru Arauaren arabera, mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriak arautzen dituen.

Patronatuan lau erakunde publikok hartzen dute parte: Espainiako Gobernuak Kultura eta Kirol Ministerioak, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Getariako Udalak. Proiektua sustatu duten sektore-erakundeak (Espainiako Moda Sortzaileen Elkarteak, esaterako) eta beste pertsona pribatu batzuk ere ordezkaturik egon dira hasieratik. Espainiako errege-erreginak Fundazioko ohorezko presidentek dira. M. Hubert de Givenchy presidente fundatzailea izan zen (kargua mantendu du hil ostean).

“

Erakundeek ikuspuntutik, garrantzitsua da Balenciaga Museoa Euskadiren irudia munduan sustatzeko sistema zabalago baten elementutzat hartzea


Bingen Zupiria

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua, eta Cristóbal Balenciaga Fundazioko patronoa.

3. Eragin ekonomikoaren ebaluazioa

Cristóbal Balenciaga Museoak garatzen dituen jarduerak Getaria kulturalki eta ekonomikoki dinamizatzen dute, eta hiribilduko eta inguruko ekonomia aktibatzen laguntzen

dute zuzenean eta zeharka. Zehazki, azken hamar urteotan, Cristóbal Balenciaga Museoaren jarduerak 14,8 milioi euroko eragin ekonomikoa izan du Espainian:




Museoaren eragin ekonomiko zuzena, zeharkakoa eta induzituari, 9,1 milioi euroko zerga-ekarpena gehitu behar zaio ere.




Jarraian, museoaren eragin ekonomikoak izan duen bilakaera zehazten da; museoa, neurri handi batean, sektore publikoaren mende dago, eta horrek bere eragin ekonomiko zuzena, zeharkakoa eta indusitua mugatzen du:

Balenciaga Museoaren ekarpen ekonomikoa (milioi €-tan)




Ondorengo grafikoak eragin hori lurraldearen eta urtearen arabera banakatzen du:

Ekarpen ekonomikoa lurralde historikoetan (milioi €-tan)



Sektore hauetan izan du eraginik handiena museoaren jarduerak 2011-2020 aldian: zerbitzu lagungarriak (% 23)¹, beste zerbitzu batzuk (% 19) eta finantzak, aseguruak eta real estate (% 14).


Ekarpen ekonomikoa sektorekoki (milioi €-tan)



Bestalde, Cristóbal Balenciaga Museoa bisitatu zuten ia 500.000 lagunek 33,4 milioi euroko zeharkako eragina eta eragin indutitua izan zuten Espainiako ekonomian 2011-

2020 aldian; horietatik, 24,1 milioi euro sortu ziren zeharka, eta 9,1 milioi euro modu indutituan. Eragin ekonomikoa honela banatu zen urtero:

Bisitarien ekarpen ekonomikoa (milioi €-tan)




1 Sektore hauek aintzat hartu dira: informatika eta aholkularitza, lege- eta kontabilitate-zerbitzuak, administrazio-zerbitzuak eta merkatuaren publizitatea eta ikerketa

Museoko bisitariek sektoreka gastatutako diruaren inpaktua kontuan hartuta, 2011-2020 aldian merkataritzaren sektorea nabarmentzen da oroz gain, egindako gastu osoaren % 32 baita, batez beste. Eragin ekonomikoa

azpimarratzekoa izan da sektore hauetan ere: garraioa (% 23); real estate, finantza eta aseguruekin lotutako zerbitzuak (% 14); eta ostatatze-enpresak, jatetxeak eta aisialdia (% 10).


Bisitarien ekarpen ekonomikoa (milioi €-tan)



4. Ekarpen sozial eta kulturalaren ebaluazioa

Hezkuntzarekiko eta prestakuntzarekiko konpromisoa

Cristóbal Balenciaga Museoak kultura sustatzeko lan nabarmena egiten du tokiko komunitatearen laguntzarekin. Asmo hori ardatz hartuta, museoak hezkuntza- eta bitartekaritza-jarduerak antolatu eta kudeatzen ditu, pertsona guztiak integratzeko eta ikasle, familia, haur, gazte, behar bereziak dituzten kolektibo eta moda-arloko profesional guztiengana (nazionalak zein nazioartekoak) hurbiltzeko.



360

parte-hartzaile goi-mailako
jostintzako teknikei buruzko
18 ikastaroetan

1.145

parte-hartzaile ehungintza-
tekniken 71 tailerretan

160

profesional udako
ikastaroen 3 edizioetan

Moda arloko profesionali zuzendutako prestakuntza

12

lankidetza Espainiako eta
nazioarteko goi-mailako
moda-eskolekin

730

parte-hartzaile
Transmissions programan

40

museoan 2020an ikusgai
egon diren parte-
hartzaileen proiektuak

Cristóbal Balenciaga Museoak sortutako enplegua

Museoa ireki zenetik 2020ra arte, museoaren jarduerak lanaldi osoko 321 lanpostu sortu zituen; gainera, bisitariak lanaldi osoko 767 lanpostu sortzen lagundu zuten aldi horretan.

Azken hamar urteotan sortutako lanpostuen tipologiari dagokionez, nabarmentzekoa da ia erdiak zeharkakoak direla. Museoaren jarduerak sortutako 321 enplegu guztien % 18 zuzeneko lanpostuak dira.

Turisten eta bisitarien jarduerak lanpostu ugari sortzen dituzte ere. Museora etorri diren bisitarien ondorioz, 767 lanpostu sortu dira azken hamar urteotan; horietatik 600 zeharka sortu ziren.

“

*Cristóbal Balenciaga Museoak
sortutako zuzeneko lanpostu
bakoitzak bost lanpostu
(zeharkakoak eta induzituak)
sortzen ditu Espainiako
ekonomian.*

Bisitarien pertzepzioa

Bisitarien asebetetze-mailari dagokionez, ausazko galdetegiak egiten zaizkie bisitarietara urtean hirutan, museoari eta egindako bisitari buruz dituzten iritziak ezagutzeko.

Aipatutako alderdien artean, bikainki baloratu dira museoaren ordutegia (5etik 4,74, 2019an) eta barne-irisgarritasuna (5etik 4,68, 2019an). Museoaren balorazio orokorra 5etik 4,6koa izan da. Bisitarien % 98,9k museo bisitatzea gomendatuko luke.

Beste eragin garrantzitsu batzuk

Kulturarekiko eta ondare artistikoarekiko konpromisoa

Cristóbal Balenciaga Museoko bildumaren balioaren igoera eta urtetik urtera gero eta bisitari gehiago izateak, ondarea zaindu eta zaharberritzeko konpromisoa areagotzen dute. Etengabe egiten da ikerketa eta

ikasketa lan handia, bildumen balioa handitzeko. Horren erakusgarri, Museoak 2.360 jantzi-pieza eta 1.209 dokumenturekin hasi zuen bere jarduerara, eta urtetik urtera handituz joan da, 2020an 5.559 erreferentzietara iritsi arte. Aldi berean, 12 aldiz handitu du bildumen ondare-balioa 10 urte hauetan, eta 2019an 2.731.661 euroko balioa lortu du.

Pieza ibiltariak eta maileguak

Cristóbal Balenciaga Museoaren ustez, museo orok antzeko beste erakundeekin konektatuta egon beharko luke, koprodukzioak eta lankidetzak (unean unekoak edo estrategikoak) ahalbidetzen dituen sare batean, bai eta ideien, informazioaren eta gogoeten trukea ere.

Alde horretatik, hamar urte hauetan, bildumako hainbat pieza mailegatu ditu Cristóbal Balenciaga Museoak Espainiako eta nazioarteko hainbat erakundek antolatutako zortzi erakusketatarako. Guztira, 498 pieza mailegatu ditu museoak, 700.000 lagunek baino gehiagok ikusi dituztenak.




5. Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa ebaluazioa

Cristóbal Balenciaga Museoak badaki bere jarduerak ingurumenean duen inpaktua, eta eragin hori ahalik eta gehien murrizteko konpromiso sendoa du. Hartutako neurriek museoak baliabideak

eraginkortasunez erabiltzea sustatzen dute, ahalik eta inpaktu txikienarekin ahalik eta onura handiena lortzeko asmoarekin.

Karbono-aztarna (2011-2020)²



Cristóbal Balenciaga Museoak bere instalazioetan kontsumitutako energiaren % 100 energia-iturri berriztagarrietatik eskuratzeko konpromisoa hartu zuen 2015ean, erakundearen karbono-aztarna nabarmen

murrizteko helburuarekin. 2015 eta 2016 artean, karbono-aztarna 196 t CO₂eq izatetik 22 t CO₂eq izatera igaro zen, hau da, % 88,7 murriztu zen.

² CO₂ tona baliokideak berotegi-efektuko gasen isuri-kopurua deskribatzeko erabiltzen dira. Berotegi-efektuko gasen tona metrikoetan duten pisua adierazten dute, atmosfera berotzeko duten ahalmenaren arabera (PCA, gaztelaniazko siglen arabera).

Bisitarien karbono-aztarnari dagokionez, berotegi-efektuko gasen isuriak 5,03 kgCO₂eq-etik (2015ean) 0,50 kgCO₂eq-era (2016an) murriztu dira bisitari bakoitzeko azken bost urteotan. Murrizketak 2020ra arte mantendu ziren.

Museoko bisitari baten CO₂eq isuriak pertsona batek **autobus publiko batean egindako 13 kilometroko** bidaia baten parekoak izan ziren 2020an.





Museoa ireki zenetik igaro diren 10 urteetako isuriak Bilbo eta **Mexiko Hiria arteko joan-etorriko hegaldi baten (220 bidaiarirekin) baliokideak dira**



Hamar urte hauetan, Cristóbal Balenciaga Museoaren karbono-aztarnak 21.279,7 €-ko eragin negatiboa izan du³

21.279,7€



Sortu zenetik, Cristóbal Balenciaga Museoaren ur-kontsumoa 5.308 m³-koa izan da.

5.308 m³



Azken hamar urteotan, Cristóbal Balenciaga Museoaren jarduerak 819 kg hondakin sortu ditu.

819 kg

3 Monetizazioari buruzko informazio gehiago lortzeko, kontsultatu inpaktu osoari buruzko txostenaren A eranskina.



6. Metodologia eta irismena

Eragin ekonomikoa

Museoak ekonomia- eta lan-arloan duen eragina kalkulatzeko, EY-k input-output metodologia (Leontief ereduan oinarritua) eta *World Input - Output Database* (WIOD) izeneko datu-basea erabili ditu. Ekonomiaren modelizazio horren eta beste elementuen arteko interakzioaren bidez (adibidez, lan-okupazioa, batez besteko soldata edo jarduera-arlo bakoitzaren balio erantsi gordina), Cristóbal Balenciaga Museoak Espainia, Euskadi eta Gipuzkoako ekonomian eta gizartean izan duen zeharkako eragina eta inpaktu indusitua ezagutu dezakegu.

Ekarpen sozial eta kulturala

Ekarpen kulturala kalkulatzeko, Cristóbal Balenciaga Museoak azken 10 urteotan bildu dituen erreferentzien (piezak eta dokumentuak) eta funts propioen kopuruaren bilakaera aintzat hartu da.

Bestalde, museoak antolatutako hezkuntza- eta prestakuntza-jardueren eragina ebaluatzeko, parte-hartzaile kopurua eta jarduera-ildo bakoitza garatzeko behar izandako inbertsioa aintzat hartu dira.

Ingurumen-inpaktua

Karbono-aztarna kalkulatzeko, Cristóbal Balenciaga Museoaren jarduerak eragindako 1. eta 2. irismeneko berotegi-efektuko gasen kontsumoa aintzat hartu da. Karbono-aztarna behar bezala konparatu eta kalkulatzeko, isuriak CO₂ baliokidearen kg-tan bihurtu dira, Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioak

ezarritako isuri-faktoreetan eta atmosfera berotzeko ahalmenari buruzko indizean oinarriturik.⁴

Cristóbal Balenciaga Museoak sortu zenetik kontsumitu duen ur-bolumena kalkulatzeko, museoaren jarduerak eragindako urteko kontsumoak kontuan hartu dira.

Cristóbal Balenciaga Museoak azken 10 urteotan sortutako hondakinak kalkulatzeko, hondakin mota eta hondakin horien helmuga aintzat hartu dira.⁵

Irismena eta mugak

Cristóbal Balenciaga Museoaren eragin ekonomikoari buruzko azterketa egiteko informazioa hainbat iturritatik dator, barnekoak zein kanpokoak. EY-k ez du egiaztatu ezta ikuskatu ere Cristóbal Balenciaga Museoak emandako informazioa. EY ez da bere lanalditik kanpo hartzen diren erabaki eta ekintzen erantzule egingo

4 Informe del Inventario Nacional de Emisiones de GEI (serie 1990-2018).

5 Erabilitako metodologiari eta haren irismenari buruzko informazio gehiago lortzeko, kontsultatu txosten osoa.



1965

1966

1967

EY | Building a better working world

En EY trabajamos para construir un mundo que funcione mejor, ayudando a crear valor a largo plazo para los clientes, las personas, la sociedad y generar confianza en los mercados de capital.

Gracias al conocimiento y la tecnología, los equipos de EY, en más de 150 países, generan confianza y ayudan a las compañías a crecer, transformarse y operar.

EY es líder mundial en servicios de auditoría, fiscalidad, estrategia, asesoramiento en transacciones y servicios de consultoría. Nuestros profesionales hacen las mejores preguntas para encontrar nuevas respuestas a los desafíos a los que nos enfrentamos en el entorno actual.

EY hace referencia a la organización internacional y podría referirse a una o varias de las empresas de Ernst & Young Global Limited y cada una de ellas es una persona jurídica independiente. Ernst & Young Global Limited es una sociedad británica de responsabilidad limitada por garantía (company limited by guarantee) y no presta servicios a clientes. La información sobre cómo EY recopila y utiliza datos personales y su correspondiente descripción sobre los derechos de las personas en virtud de la legislación vigente en materia de protección de datos, están disponibles en ey.com/es_es/legal-and-privacy. Las firmas miembros de EY no ejercen la abogacía donde lo prohíban las leyes locales. Para obtener más información sobre nuestra organización, visite ey.com/en_gl.

© 2021 Ernst & Young, S.L.
All Rights Reserved.

ED None

Este material se ha preparado únicamente con fines informativos generales y no debe considerarse como asesoramiento contable, fiscal o profesional. Consulte a sus asesores para obtener consejos específicos.

ey.com/es_es